

Ihesi

KAREN ALBERDI ETA KRISTINA IGARTUA

Argazkiak: Gotzon Aranburu

Euskal Herria ezagutuz: **Urretxu (Gipuzkoa)**

Denborak harrapatutako harri bitxiak

21 urteko ibilbidea izan arren, oraindik oso ezaguna ez den harribitxia gordetzen du bere baitan Urretxuk: Urrelur museoa. Bertan, mundu osoko mineral, fosil eta harriak daude. Mila aletik gora ikusgai.

Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoa Kultur Etxeko behe solairuan dago. Eraikinaren izena Aizpurunea Etxea da, eta XVIII. mendekoa da. 1987. urtean, Kultur Etxea inauguratzeaz batera, ireki zen Museoa, Nicasio Aguado Ayerdi jaunak Udalari eskainitako mineral eta fosil bilduma ederra erabilita. 1991n, gainera, harri bilduma gehitu zitzaion aurrekoei. Horri esker ikasle, irakasle, aditu eta, besterik gabe, jakin-minak bulzatutako askok natur zientzien

mundu interesgarrira gerturatzeke aukera izan dute.

2006tik museoak jabego publikoa du, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Udalak bilduma osoa erosi baitzuten. Hiru bilduma dira, bi ibilbidetan banatuta. Lehenengoan, mineralen eta harrien mundua ezagutzeko aukera izango dugu, bai paneletan ageri den informazioari esker, eta baita ere –seguruenik askoz gehiago ikasteko parada emango du honek– bisitariak minerekin jolasteko dauden tailerrei

esker. Horietan, gogortasuna, magnetismoa, erradioaktibitatea eta mineralen bestelako propietate batzuk zer diren era zuzenean jakiteko aukera dago.

Bigarren ibilbidea fosilena da. Museoaren atal garrantzitsua da hau, fosilak baitira orain dela milioika urte bizi izan ziren izakiak ezagutzeko modu bakarra. Hiru atal dituzu alde honetan: denbora geologikoaren panela, denbora-irizpidearen arabera ordenaturiko fosilak, eta planetako bizitza.





Aizpuruena Etxearen behe solairuan dago aurrerantzean Urrelur izena edukiko duen museoa. Hiru bilduma daude guztira, mineral, harri eta fosilentzat bana, eta horiez ikasteko aukera ere bada, ekintza interaktiboen bitartez.



Hainbat jarduera

Urtean zehar hainbat ekimen antolatzen dituzte museoan, jendea mineralogia eta paleontologia mundura gerturatu nahian. Azpimarratzekoak dira gero eta ezagunago bihurtzen ari den Museoen Nazioarteko Egunaren inguruan egiten direnak. Maiatzaren 18aren bueltan, bi astez, doaneko bisita gidatuak eskaintzen zaizkie ikastetxeei, monografiko bereziak eta txangoak egiten dira, eta batez ere, *Museoak kalera, jolastu gurekin* jokoa antolatzen da. Urretxuko Udala, Uggasa agentzia eta Bitartean–Urretxu eta Zumarragako dendarien elkarteak– dira antolatzaileak. Aurten egin da bigarrena.

Aipatzekoa da, halaber, udazkeneko Mineralogia eta Paleontologia-ri Buruzko Astea, museoaren sorreratik bertatik antolatua. Beraz, aurtengoa hogeita batgarrena izan da. Erakusketak, txangoak, hitzaldiak, ikastaroak, haur eta gaztetxoen zatitailerrak... Denetik izaten da aste berezi honetan.

Jarduera horiek museoari bizia emateko eta haren izena zabaltzeko sortu ziren. Baina hori ez da nahikoa. Horregatik, Urretxuko Udalak lanari ekin dio eta museoak hartu duen garrantzia ikusita, behar adina etekin ateratzeko urratsak ematen hasi da. Lehenbizikoa museoari bere izena ipintzea izan da. Horre-

tarako herriko zenbait talde zein banakori proposamenak aurkezteko eskatu zitzairen. Horietan bozkatuena Urrelur izan da, eta beraz izen hori edukiko museoak aurrerantzean.

Mineral, fosil eta harrien berri izateko Urretxura gerturatzerat baino ez duzu. Baina Urretxun, horrez gain, badago zer ikusi. Esate baterako, gune historikoa eta bertako zenbait eraikin: San Martin de Tours eliza, Areizaga Jauregi-etxea, Iparragirrerren Jaiotetxea... Baita ere, besteak beste, hilerrian dagoen Iparragirreri eskainitako mausoleoa eta Aikur Erle museoa, Santa Barbara bidean. ■



Urretxuko udala

Urretxuko Udala: Iparragire 20. 20700 URRETXU
e-posta: urretxu@urretxu.net

Tel.: 943 03 80 80 Faxa: 943 03 80 81
www.urretxu.net